<table>
<tr><td>

**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BATZARRAREN AKTA (2004-11-18)**

</td><td>

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (18-11-04)**

</td></tr>
<tr><td>LEHENDAKARIORDEA<br>FERNANDO BURZAKO jn, Ingurumeneko zinegotzia</td><td>VICEPRESIDENTE<br>D.FERNANDO BURZAKO, Concejal de Medio Ambiente</td></tr>
<tr><td>IDAZKARIA:<br>ARANTZA CABEZA and.</td><td>SECRETARIA:<br>Dª. ARANTZA CABEZA</td></tr>
<tr><td>INGURUMENEKO TEKNIKARIA:<br>JOSU ATEKA jn.</td><td>TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:<br>D. JOSU ATEKA</td></tr>
<tr><td>INGURUMENEKO AHOLKULARIA: ( Ingurune)<br>JULEN REKONDO jn.</td><td>CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL: ( Ingurune)<br>D. JULEN REKONDO</td></tr>
<tr><td>ETORRI DIRENAK:</td><td>ASISTENTES:</td></tr>
<tr><td>JOSE ALMEIDA jn. Getxo Enpresa eta Merkataritza.<br>DIMAS RAMOS jn.:<br>ARANTZA TORRES CUESTA and.: Bizkel<br>KOLDO NABASKUES jn. ( Urkoa, Kontsumitzaileen Elkartea)<br>CARLOS ARANA ERHARDT jn.: Fegevol (Getxoko Erakundeen Federaizoa)<br>LINO ASTOBIETA jn. ( Ekologistak Martxan )<br>PATXI DIAZ jn. ( Ibilibide Ekologikoak )<br>CONCHI MIGUELEZ MORAN and. (Larrañazubi Ikastetxeko irakaslea)<br>CARMEN ESTRADA and. ( Itxas Argia )<br>XABIER BUENETXEA ARAGUES jn. (Ingurumeneko aditua)<br>JON GALLASTEGI jn. ( Fadura Institutoa)<br>YOLANDA MENCHACA and.</td><td>D. JOSE ALMEIDA. Getxo Empresarial y Comercial.<br>D. DIMAS RAMOS:<br>Dª.ARANTZA TORRES CUESTA: Bizkel<br>D.KOLDO NABASKUES ( Urkoa, Asociación de Consumidores )<br>D. CARLOS ARANA ERHARDT : Fegevol ( Federación de Entidades de Getxo)<br>D. LINO ASTOBIETA( Ekologistak Martxan )<br>D. PATXI DIAZ ( Itinerarios Ecológicos )<br>Dª. CONCHI MIGUELEZ MORAN (Profesora Colegio Larrañazubi)<br>Dª. CARMEN ESTRADA ( Itxas Argia )<br>D. XABIER BUENETXEA ARAGUES (Experto Medioambiental )<br>D. JON GALLASTEGI ( Fadura Institutoa)<br>Dª. YOLANDA MENCHACA</td></tr>
<tr><td>Algortako Kultur Etxean, 2004ko azaroaren 18an. Ingurumeneko Tokiko Foroa batzartu da gaurko arratsaldeko zazpietan. Goian aipatutako pertsonak etorri dira.<br>Lehendakari jaunak, legezko jende-kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi dela adierazi du. Deialdiko gaien zerrendan dauden gaiak aztertu dira gero. Hauxe izan da emaitza.</td><td>En el Aula de Cultura de Algorta, a 18 de noviembre de 2004. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente, con asistencia de los capitulares reseñados.<br>El Sr.Presidente, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose a despachar los asuntos incluidos en el orden del día de la convocatoria, con el siguiente resultado:</td></tr>
</table>

**AZTERGAIEN ZERRENDA**

2004-10-20ko batzarreko akta onetsi da, honako zehaztapen hauekin:

- Lino Astorbieta jaunak bi CD banatu ditu, proposamen banarekin. Lehenengoan Erandioko Marragorri taldearen proposamena dago. Proposamen hau errepideetan metro eta erdiko errei bat jartzeko da; beste proposamena, Madrilgo Pedal-Libre elkartearena da. Udalaren ordezkariek euskarri informatiko biak jaso dituzte, dakartzaten ideiak eta informazioa aztertzeko.

- José Almeida jaunak, bestalde, galdetu du foroan egiten ari den taldeen lana bukatutakoan batzarrik deituko den dena jasotzen duen azken dokumentua eztabaidatzeko.

  Zehazki, "Nire autoa gabeko eguna" aipatu du. Sektorerik kaltetuenen parte hartzea ekintzan kontuan izateko eskatu du.

  Erantzun zaio horixe dela asmoa. Dena dela, data Europan erabaki denez, aldatzeko aukera gutxi dago. Halere, bere iritzia ekintzaren idazkuntzan jaso zen. Hauxe dakar, hitzez hitz:

  " 4.3.5. Mugikortasun iraunkorreko jardueren egitaraua ezartzen jarraitzea, Europan "Hiria nire autoa gabe" eta Mugikortasunaren Astea ospatzearekin batera. **Hori antolatzeko, Getxo udalerrian arazo honengatik kezkaturik dauden sektoreen edota arazoaren ondorioak pairatzen dituzten sektoreen parte hartzea bilatuko da."**

**ORDEN DEL DÍA**

Fue aprobada el acta correspondiente a la sesión celebrada el día 20-10-04, con los siguientes comentarios:

- El Sr. Lino Astorbieta entregó dos C.D. correspondientes, uno de ellos a una propuesta, Marragorri, de un grupo de Erandio, en la que se apuesta por colocar un carril de alrededor de metro y medio en las carreteras; y el otro, de una asociación de Madrid, Pedal-Libre.
  Ambos soportes informáticos, se recogen por los representantes del Ayuntamiento, como aporte de ideas e información, para su estudio.

- El Sr. José Almeida, por su parte, preguntó si una vez finalizado el trabajo de grupos que se estaba realizando en el foro, iba a convocarse una reunión en la que se discutiera el documento final que recogiera todo.
  En concreto se refirió a la celebración del "Día sin mi coche", y quería que quedara bien reflejado en la acción, que se contara con la participación de aquellos sectores más perjudicados.
  Se le contestó que, en efecto, esa era la intención, y que de todos modos, si bien al ser un día señalado desde Europa, la posibilidad de cambiarlo era prácticamente nula, se consideraba que su opinión ya había quedado recogida en la redacción de la acción, que literalmente dice:
  " 4.3.5. Continuar con la implantación de un programa de actividades de movilidad sostenible coincidiendo con la celebración de la jornada europea "La ciudad sin mi coche" y la Semana de la Movilidad, **para cuya organización se contará con los sectores afectados y preocupados por esta problemática en el municipio de Getxo "**

Almeida jaunak proposatutako ideia jasoko da beraz, hau da, ukitutako sektoreen artean ahalik eta adostasunik zabalena bilatuko da.

Se recoge la idea presentada por el Sr. Almeida, de intentar buscar el mayor consenso posible, entre los sectores afectados.

**2.- FOROAK, BERE OSOTASUNEAN, 4. LERRO ESTRATEGIKOA ("MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA ETA GARRAIO PUBLIKOA BULTZATZEA) BALIOZKOTZEA / ONESTEA.**

Urriaren 20ko batzarraren aktan 4. lerro estrategikoaren idazkuntza berria sartu zen, foroak eginiko ekarpenik gehienekin.

Etorri direnek ez dute inongo eragozpenik jarri puntu hau onesteko.

**2.- VALIDACIÓN/APROBACIÓN POR PARTE DEL CONJUNTO DEL FORO DE LA LÍNEA ESTRATÉGICA 4 TITULADA "IMPULSAR LA MOVILIDAD SOSTENIBLE Y POTENCIAR EL TRANSPORTE PÚBLICO"**

En el acta que corresponde a la sesión celebrada el 20 de octubre se adjunta una nueva redacción, de la Línea Estratégica 4, que incluye la mayor parte de las aportaciones realizadas por el foro.

En este punto no hubo ninguna objeción por los presentes, a la aprobación de este punto.

**3.- 5. LERRO ESTRATEGIKOA (UR HORNIKETAREN KUDEAKETA OPTIMIZATZEA), 6. LERRO ESTRATEGIKOA (HIRI HONDAKINAK BIRZIKLATZEA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA) ETA 7. LERRO ESTRATEGIKOA (UDALAREN ENERGIA KUDEAKETA OPTIMIZATZEA) LANTALDE TXIKIETAN LANTZEA.**

3 lan-talde osatu dira, honela eraturik:

1. taldea:
José Almeida
Dimas Ramos
Jon Gallastegi
Patxi Díaz
Carmen Estrada

2. taldea:
Conchi Miguelez
Arantza Torres
Yolanda Menchaca
Xabier Buenetxea
Julen Rekondo

**3.- TRABAJO EN GRUPOS REDUCIDOS DE LAS LÍNEAS ESTRATÉGICAS 5 ( OPTIMIZAR LA GESTIÓN DEL ABASTECIMIENTO DE AGUA), 6 (IMPULSAR Y FOMENTAR EL RECICLAJE DE RESIDUOS URBANOS ) Y 7 ( OPTIMIZAR LA GESTIÓN ENERGÉTICA MUNICIPAL)**

Se formaron 3 grupos de trabajo con la siguiente composición:

Grupo 1:
José Almeida
Dimas Ramos
Jon Gallastegi
Patxi Díaz
Carmen Estrada

Grupo 2:
Conchi Miguelez
Arantza Torres
Yolanda Menchaca
Xabier Buenetxea
Julen Rekondo

3. taldea:
Fernando Burzako
Lino Astobieta
Koldo Nabaskues
Carlos Arana

Grupo 3:
Fernando Burzako
Lino Astobieta
Koldo Nabaskues
Carlos Arana

Taldeek ekintzak landu dituzte, eta gero emaitzak azaldu dituzte. Hauek izan dira:

Los distintos grupos trabajaron en las acciones, y posteriormente se realizó una puesta en común cuyo resultado se transcribe:

5. LERRO ESTRATEGIKOA. UR HORNIKETAREN KUDEAKETA OPTIMIZATZEA.

LINEA ESTRATÉGICA 5 . OPTIMIZAR LA GESTIÓN DEL ABASTECIMIENTO DE AGUA.

**1. taldea:**

- Ihes baten aurrean jarduteko protokoloa.
- Ihes txikiak eta lurpeko ihesak kontrolatzea, detekzio sistemarik egotekotan.
- Iturri publikoen mantenimendua (haien instalazioa baloratu da). Gehiago jartzeko eskatu da.
- "Kontabilizatu gabeko uraren" kopuruari buruzko azterketa egitea. Ihesen portzentajea, kale garbiketari dagokiona, berdeguneak ureztatzekoa, eta abarrekoak bereiztu behar dira. Jasotako emaitzen arabera, arazoa arintzeko jarduketak egitea, besteak beste, hezkuntza kanpaina.
- Kontzientzia sortzeko kanpainak, etxeko kontsumoa eta komertziala/enpresalariala bereiztuz. Emaitzen arabera, kanpaina mota bat edo beste ezarriko da, atzemandako arazoan eraginez.
- Etxean ur-bide desberdin bi jasotzea: batetik, edateko ura, bestetik, bestelako erabileretarako ura.

**Grupo 1:**

- Protocolo de actuación ante una fuga.
- Controlar las fugas pequeñas y las subterráneas si existe algún sistema de detección.
- Mantenimiento de las fuentes públicas ( se valora su instalación ) solicitando se aumente su número.
- Hacer un estudio de la cantidad de "agua no contabilizada" diferenciando el porcentaje que corresponde a fugas, el que corresponde a limpieza de las calles, riego de zonas verdes... y, en función de los resultados obtenidos, iniciar actuaciones para minorar el problema, entre otras, campañas educativas.
- Campañas de concienciación, (diferenciando el consumo doméstico del comercial/empresarial, en función de los resultados se establecerá un tipo de campaña u otro, incidiendo en el problema detectado).
- Recibir en el domicilio dos vías de agua diferentes: una potable para consumo y la otra para otros usos.

Gehitu dute baliabideak xahutzea dela edateko ura kale garbiketarako eta berdeguneak ureztatzeko erabiltzea.

Señalaron que consideraban un derroche de recursos utilizar agua potable para la limpieza urbana y el riego de zonas verdes.

**2. taldea**:

- Kontagailuen aldiroko berrikuspenak
- Sailen arteko koordinazioa obrak egiten

**Grupo 2**:

- Revisiones periódicas de contadores
- Coordinación de departamentos cuando se

direnean, ura alferrik ez xahutzeko.

- Garbitzeko eta ureztatzeko beste sistema bat ezartzea, edateko ura ez erabiltzeko.

realizan obras, par evitar despilfarros de agua.

- Sistema alternativo al actual para la limpieza y riego. ( no utilizar agua potable)

Kale garbiketa urez ze maiztasunez egiten den galdetu dute. Teknikariak (Ateka jaunak) azaldu du eta gehiegizkoa iruditu zaie. Honela azaldu du Ateka jaunak:
"Pato" izeneko makinak erabiliz, astean bitan Getxo osoan kaleak urez eta presioz garbitzen dira; astean behin ia zona guztietan, eta jenderik gehien ibiltzen den lekuetan, astean bitan edo hirutan.

Gaineratu duenez, garbiketa egiteko ura ibaitik hartzeko aukera aztertu da, baina arazo tekniko eta ekonomikoak zirela bide, ideia baztertu da.

Se interesaron por la asiduidad con la que se realiza la limpieza de calles, utilizando agua, que les pareció excesiva tras la explicación del Técnico, Sr. Ateka:
" Con una máquina que llaman "patos" se efectúa dos veces a la semana en todo Getxo; el baldeo mixto con presión , una vez a la semana en casi todas las zonas y, los cascos y zonas muy transitadas, de dos a tres veces por semana".
Añadió que se había realizado un estudio captando agua del río para efectuar la limpieza, y tanto por problemas técnicos como económicos se descartó.

**<u>3. taldea</u>**:

- Ura ondasun urria dela kontuan hartzen duen kultura eta hala kudeatzea. Zabalpen eta informazio kanpainak.
- Hornidurаren gastuaren eta fakturazioaren kontrola (sarrerak eta fakturazioa, eta emaitzen arabera, kanpainei ekitea).
- Baliabideen inbentarioa egitea: iturburuak, akuiferoak, balizko kaptazioak... sare alternatibo bat lokalizatzeko, egotekotan eta erabilgarri izatekotan.
- Aurrezpena pizteko eta gastua zigortzeko arautegiak sortzea.
- Energiako eraginkortasuneko etxeko ekipoen produkzioa nahiz erosketa bultzatzea (aurrezpen teknologia).
- Herri ordezkaritza Ur Partzuergoan.

**<u>Grupo 3</u>**:

- Gestión del agua y cultura del agua como bien escaso. Campañas divulgativas e informativas.
- Control del gasto de suministro y facturación (de lo que entra y lo que se factura, y en función de los resultados, iniciar campañas ).
-Inventariar los recursos: manantiales, acuíferos, posibles captaciones... para localizar una red alternativa si es que existe y es factible su utilización
-Dictar normativas tanto para incentivar como para penalizar el gasto.
-Incentivar tanto la producción como la compra de equipos domésticos de eficiencia energética.(Tecnologías ahorradoras )
-Representación popular en el Consorcio de Aguas.

Talde bakoitzak azaldu dituen kontuez eta lerro estrategiko honen idazkuntzaz esan behar da batzuk galdera gisa planteatu direla eta beste batzuk, aldiz, Ekintza Planean sartzeko aipatu direla. Lehenengoei dagokienez, gai hauei buruzko galderak egin ziren: kale garbiketaren maiztasuna, ihesen detekzio-sistemarik dagoen, kontagailuak zenbatero berriztatzen diren, etab. Gutxi gorabehera batzarrean

En lo que respecta a las cuestiones planteadas por cada grupo y la nueva redacción de esta Línea Estratégica, cabe decir, que algunas fueron planteadas a nivel de preguntas, y otras se señalaron para introducirlas en el Plan de Acción. En torno a las primeras, están las preguntas que hacían referencia a la asiduidad con que se realiza la limpieza de las calles, si existe algún sistema de detección de fugas, con

galdera guztiei erantzun zaie.

que frecuencia se renuevan los contadores...Más o menos, todas ellas fueron respondidas en la reunión.

Bestalde, talde bakoitzak azaldutakoa eta gero, Getxoko Udaleko Ingurumen Arloak URARI buruzko 5. lerro estrategikoaren idazkuntza hau proposatu du Ingurumeneko Tokiko Foroaren hurrengo batzarrean onesteko (abenduaren 15ean, 19:00etan, egingo da batzarra):

Por su parte, y tras lo expuesto por cada uno de los grupos, el Area de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Getxo propone para su aprobación en la próxima reunión del Foro Local de Medio Ambiente, a celebrar el próximo 15 de diciembre, a las 19 horas, la siguiente redacción de la Línea Estratégica 5 referida al AGUA:

**5. LE. UR HORNIDURAREN KUDEAKETA OPTIMIZATZEA ETA BERAREN KONTSUMOA ARRAZIONALIZATZEA.**

**LE. 5 OPTIMIZAR LA GESTIÓN DEL ABASTECIMIENTO DE AGUA Y RACIONALIZAR SU CONSUMO**

**P 5.1. Ura Aurrezteko Plan Integrala sortzea. Ideia nagusia, ura baliabide urria dela.**

5.1.1. Eraikin publikoetan eta lorategiak ureztatzean uraren kontsumoa gutxitzea.
5.1.2. Ureztapena eta bide publikoaren garbiketa edateko ez den uraz egiteko neurriak ezartzea.
5.1.3. Sektore guztietan uraren kontsumoa urritzeko ohitura egokiei buruzko informazio kanpainak egitea.
5.1.4. Ibaietako urak gizakien zeharkako kontsumorako erabiltzeko aukerari buruz azterlan bat egitea.
5.1.5. Udal ordenantzak edo arautegiak sortzea, bai uraren kontsumoa murrizteko bai gastua zigortzeko.
5.1.6. Udal proiektu eta eraldaketa berrietan, eta babes ofizialeko etxebizitzetan, uraren kontsumoa murrizteko neurriak kontuan izatea, ura aurrezteko teknologiak ezarriz.

**P 5.1. Elaborar un Plan Integral de Ahorro de Agua, partiendo de la idea central de que el agua es un recurso escaso**

5.1.1. Minimización del consumo de agua en edificios públicos y en el riego de jardines.
5.1.2. Implantación de medidas tendentes a fomentar el riego y la limpieza de la red viaria con agua no potable.
5.1.3.Realización de campañas informativas acerca de buenas prácticas encaminadas a la disminución del consumo de agua en todos los sectores.
5.1.4. Realizar un estudio para la utilización de aguas pluviales para consumos humanos no directos.
5.1.5.Dictar normativas u ordenanzas municipales tanto para incentivar la reducción del consumo de agua como para penalizar el gasto.
5.1.6.Considerar medidas de ahorro en el consumo de agua, a través de la instalación de tecnologías ahorradoras de agua, en los nuevos proyectos y reformas municipales, así como en las viviendas de protección oficial.

**P 5.2 Kontabilizatu gabeko ura murrizteko eta kontrolatzeko programa (ihesak, legez kanpoko hartuneak, erabilera publikoak...)**

5.2.1. Ur horniduraren kontrola hobetzea, ihesek sortutako galerak eta udal zerbitzuen kontsumoak ezagutzeko.
5.2.2. Ur hornidurako sareak hobetzea eta

**P 5.2 Programa de control y reducción de agua no contabilizada (fugas, tomas ilegales, usos públicos...)**

5.2.1. Mejorar el control del abastecimiento de aguas, para conocer las pérdidas por fugas y los consumos en los servicios municipales.
5.2.2. Mejorar y modernizar las redes de

berriztatzea, sarearen eraginkortasuna handitzeko, eta kontrolik gabeko galera eta kontsumoak murrizteko.
5.2.3. Kontagailuen parkea aldiro berriztatzea.
5.2.4. Matxuren aurrean erantzuteko gaitasuna hobetzea eta arintzea, sareko kartografia digitalizatuarekin.
5.2.5. Industriako erabilerako eta etxeko erabilerako ur kontsumoak identifikatzea.

abastecimiento de agua de cara a aumentar la eficiencia de la red y disminuir las pérdidas y los consumos incontrolados.
5.2.3. Renovación periódica del parque de contadores.
5.2.4. Mejorar y agilizar la capacidad de respuesta ante las averías, con la ayuda de cartografía digitalizada de la red.
5.2.5. Identificar los consumos de agua correspondientes a uso industrial y uso doméstico.

**P 5.3. Hornidurako iturri berriak edukitzea**
5.3.1. Getxo udalerrian dauden baliabideak (iturburuak, akuiferoak, balizko kaptazioak...) inbentario batean zerrendatzea, sare alternatibo bat lokalizatzeko, egotekotan eta erabilgarri izatekotan.
5.3.2. Orain dauden iturri publikoak mantentzea, eta etorkizunean areagotzea.

**P 5.3. Disponer de nuevas fuentes de abastecimiento**
5.3.1.Inventariar los recursos existentes en el municipio de Getxo como manantiales, acuíferos, posibles captaciones...para localizar una red alternativa si es que existe y es factible su utilización.
5.3.2.Mantenimiento al menos de las fuentes públicas existentes en la actualidad, tendiendo a su aumento progresivo.

Azkenean, 21:10etan batzarra bukatutzat eman da.

Finalmente, se dio por concluida la reunión a las 21:10.